

DROGETEN ITURRI

Ermua eta Mallabiko aldirak. 227. zkia. 2014ko urria



**Azaroaren 8an,
zatoz 25. San Martin Azokara!**



LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN



ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA

ETENGABEKO ORDUTEGIA



Doctor **Antonio Murillo**

Hezur Birsortuntza eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria. **Leidako Unibertsitatea eta Madril.**
Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua. **Alfonso X.a Unibertsitatea. Madril.**
Implantologia Masterreko Irakaslea. **Leidako Unibertsitatea.**
Kirurgia Masterreko Irakaslea. **Salamanca Unibertsitatea.**
Unibertsitate Institutuetako Irakasle gonbidatua. **Madrilgo Unibertsitate Konplutensean eta Bartzelona, Sevilla, Almeria, Lleida, Leon, Malaga... Unibertsitateetan.**

Doctora **Ainhoa Zulueta**

Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea.**
Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Implantologian. **Leongo Unibertsitatea.**
Diplomatua Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.**
Hortz-Estetikan Diplomatua. **Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.**
Hortz-Estetikan Diplomatua. **Autran Institutoa, Bartzelona.**
Etengabeko Formakuntza. **New York-eko Unibertsitatea.**
Oklusioan Graduondoa. **Anibal Alonso Doktorea.**



Astelehenetik ostiralera:

8:00etatik 22:00etara

Zapatuetan:


10:00etatik 14:00 etara

Eibarko Dendarien Elkarte
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ
Galdetuiguazu!



MUTUAK ETA ASEGUURAK

GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGÓN/STONEBRIDGE, AVANTSALUD, PADI...
Galdetuiguazu!



IRAZABAL

clínica dental

FINANTZIAZIO BEREZIA

Abantaila ekonomiko handiak eta finantziario aukera ezinhobeak. **GALDETU**

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR - Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.org

ERREDAKZIO TALDEA:

Alazne Aiestaran,
Igone Amesti, Ibaia
Azagirre, Leire Elustondo,
Estibalitz González
eta Dorleta Vidal.

KOORDINAZIOA**ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIA:

Dorleta Vidal

LAGUNTZAILEAK:

Antonio Hernández 'Cuco',
Patxi López,
Pello Mugarza,
Valentin Mugarza
eta Ainara Riveras .

ARGAZKIAK:

Igone Amesti,
Artarrail Mendi Taldea,
Ibaia Azagirre,
Leire Elustondo,
Andoni Esmeralda,
Aitor González,
Estibalitz González,
Valentin Mugarza,
Elena Roldán
eta Dorleta Vidal.

PUBLIZITATEA:

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Ainitze Antxia, Nora Mateos
eta Olatz Vidal.

TIRADA:

2.425 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-215/94.

*Drogeteniturrrik ez du
bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Bertoko ugaztunak

...Gure baserriarren ahotik

KATAMIXARRA *Ardilla Sciurus vulgaris*

Udazkenarekin lotzen dugu katamitxer saltaria, haren baten sasoi horretako fruituak direlako bere elikagai ezagunena: urra edo intxaur arbolapeetan erraza da bere lorratza topatzea, lurrera botatzen dituen oskol hutsengatik ez bada ere. Dena den, pinu-kaskarak, arbola-azalak eta ezkurak ere haren dietaren parte dira.



Gurean bizi diren ugaztunen artean, zuhaitzeta-
ra igotze kontuetan tre-
beena dugu: batetik
bestera, dzanga-dzanga egiten du salto, erpeekin arbolara inkatuz, eta lurrean ere ez da atzean geratzen, ez!

Atzeko apatxak handiagoak eta 5 erperek dituen, aurreko txikiagoetan 4 dituen bezala eta esku gisa erabiltzen ditu azken horiek. Buztan luzea tente? Seinale adi dagoela, antena ixotuta duela. Buztan gorria makurtuta? Hor doa katamixarra, arin, ziztu bizian... nork daki nora?

Hilabete honetan...

| | |
|--|---|
| MUNDUKO AHOTSAK...4 Maribel Núñez (Dominikar Errepublikan) | BOTEPRONTOAN16 Nerea Eizagirre |
| ELKARRIZKETA5-7 Elena Roldán, mezzosopranoa | KIROLZALE17 Aitor González txirridularia |
| MALLABIAN ZER?8-9 Gotzainaren bisita eta Urriko Jaiak | IRITZIA18 "Sintoma: Aldaketarako abisua eta..." |
| MOTZEAN10 "Bizilagunak" programa martxan da | SALEROSKETAK19 Saldu, erosi edo agurtu |
| 25. SAN MARTIN11-13 Egitaraua eta San Martin Kulturala | ANTZINAKOAK.....20 Ermuko eta Mallabiko argazkiak |
| ERMUAN ZER?14-15 Noelia Dosantos eta Andoni Esmeralda | KALEKO INKESTA21 Padel pistak beharrezkoak dira? |
| | AGENDA22 Azaroko agenda |

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Maribel Núñez

Karibeko irla utzi eta 29 urterekin etorri zen Maribel Ermura. Dagoeneko lau urte daramatza hemen, eta prozesu gogorra bizi behar izan duen arren, bere lekua topatu du. Orain, hamalau eta sei urteko alabatxoak ekartzeko erronka du eta pausoak ematen ari da lehenbailehen lortzeko.

- Nolakoa zen zure bizitza La Vega?

Amak AEBtik bidalitako arropak saltzen nituen, eta ez nintzen gaizki bizi. Kontua da bi alaba ditudala, eta eurentzako etorkizun hobea nahi nuen. Saltzaile lanak ez zidan diru asko ematen eta hona etorri nintzen.

- Erabaki erraza izan zen?

Egia esan, ez nuen erabakitzeke denborarik izan: ostegun batean lagun batek Espainiara bidaiatzea proposatu zidan, eta larunbatean hartu nuen hegazkina. Ez nuen pentsatu, eta, pentsatu izan banu, ez nintzateke etorriko. Nahiz eta alaben hobe beharrez etorri, umetxoak ziren. Aitarekin daude, baina ez nituzke berriro utziko.

- Gogoan daukazu bidaiaren hura?

Bai, baina gogoratzeak negargura ematen dit. Legala zelakoan dirutza ordaindu nuen —amari dirua eskatuta—, eta hilabetez egon nintzen bidaiatzen. Hiru herrialdeetatik pasatu (tartean Holanda eta Grezia), kartzelan ere egon eta azkenik hona heldu nintzen. Domi-



x La Vega,
Dominikar Errepublikak



nikar Errepublikako lagun batek hartu ninduen haren etxean, baina orain bakarrik bizi naiz, hori baita alabak ekarri ahal izateko bete behar den betekizunetako bat. Bospasei hilabetetan alabak hemen egotea espero dut.

- Erraz topatu zenuen lana?

Lau hilabete eman nituen lana topatzeko. Tailer batean piezak egiten hasi nintzen, eta bi urte eman nituen. Ondoren, Berrizen emakume nagusi bat zaintzen. Gaizki tratatzen ninduen, eta paperak lortu nituenean, lana utzi nuen. Orduetik bi aldiz egon naiz Dominikar Errepublikan, eta duela hilabete inguru London taberna zabaldu genuen lagun batek eta biok. Ea zortea dugun!

- Zerk harritu zintuen hemen?

Denak: ohiturak, eguraldiak, jana-riak... Baina ohitu egiten zara. Orain

arraro sentitzen naiz hara joatean, beroak akabatzen nau! Bestalde, pena ematen dit ikusteak hangoak zoriontsuak direla ezer ez eduki arren: jateko eta janzteko badaukate, nahiko! Eta ez daitezela musika eta dantza falta! Hemen, ordea, jendeak gauza asko ditu, eta hala ere ez da konformatzen, ez da zoriontsua.

- Ermuan geratzeko asmoa duzu?

Momentuz bai, baina etorkizunean AEBtara joatea gustatuko litzaidake. Familia erdia baino gehiago daukat bertan!

- Euskaraz hitz egiten badakizu?

Ez, hitz solteak dakizkit: zaintzen nuen emakume horrek botatzen zizkidan irainak! Gustatuko litzaidake ikastea, baina nire alabei utziko diet.

Dorleta Vidal

SAN ANTONIO
OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

AIZ

AIZ
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

IKASTOLA
1968tik Ermua euskalduntzen



Elena Roldán, mezzosopranoa:

“Batuetan damutzen naiz profesionala izateko erabakia lehenago hartu ez izanaz”

Barakaldon jaioa da, baina Ermura ezkondu zen Elena Roldán duela 23 urte. Musika irakaslea da ogibidez, eta duela 14 urte inguru Ongarai Eskolako Ikasketa Burua da. Eskolatik kanpo, baina, zaletasuna baino gehiago den zeregina dauka Elenak: kantua. Txikitatik ikasi zuen kontserbatorioan: solfeoa, pianoa, akordeoia... eta hainbat abesbatzatan abestu zuen. Hamasei urte zituenean, amarekin joaten zen kontzertuak eta zarzuelak ikustera, eta hamazortzi ingururekin Barakaldoko Orfeoia zarzuela taldean izena ematea erabaki zuen. Bere irakaslea dena ezagutu zuen bertan, María Montes, eta ikasten eta formazioa jasotzen dihardu ordutik. Zarzuelan, koroan eta bakarka abestu izan du eta horretan dabil gaur egun ere.

- Mezzosopranoa zara. Zer esan nahi du horrek?

Emakumeen ahotsen artean, nirea erdikoa dela. Altuena sopranoa da eta baxuena, aldiz, kontralttoa. Mezzosoprano naizen arren, kontraltora jotzen dut asko, nire ahotsa nahiko iluna delako. Hala ere, ahotsik ugariena sopranoena da.

- Eta nolakoa zen zure ahotsa kantuan hasi aurretik?

Ahots atsegina nuen, besterik ez. Jendeak uste du abesbatza bateko kidea izateko ahots berezia behar dela, baina ez pentsa! Oro har, ahotsa baino, belarri ona izatea da garrantzitsuagoa: ez desafinatzeke, melodiak arin harrapatzeke, ziurtasuna izateko... Ez dut esaten edonor sar daitekeenik, baina ez da ahots pribilegiatua behar.

- Ahotsa, beraz, landu daitekeen tresna da?

Noski. Ahotsa hazi egiten da. Badaude pribilegiatu batzuk jaiotzatik ahots ona daukatenak; baina orokorrean, lanketaren emaitza izaten da.

- Zein taldetan ibili izan zara?

Barakaldoko Orfeoian hasi nintzen, bertako Zigor abesbatzan egon nintzen ostean, Algortako Hirutasunean, Iralan eta Pispillun urte mordoan. Ermura etorri nintzenean, Pispillu izan zen nire salbazioa eta lagun handiak di-



tut bertan. Aipatutako taldeei esker lagun asko egin ditut eta elkarte, lan egiteko modu eta errepertorio ezberdinak ezagutu ere.

- Gaur egun, talderen batean zaude?

Bai, Bilboko Rossini abesbatzan —Arriaga Antzokian abesten duena— eta AMCBn (Bilboko Ganbera-Musika Elkarte). Azken horrek, koruaz gain, orkestratxo du, beraz, errepertorio ezberdina kantatzeko aukera ematen dit. Hemen bai, ahotsak kalitatezkoak izan behar dute.

- Kantua ogibide bihurtzea pentsatu duzu inoiz?

Garai batean bai, baina lan egonkorra nuen, familia... bizitza antolatua nuen.

Gainera, kantuz bizitzeko kanpora joan behar duzu: Madriler, Italiara edo Alemaniara. Adinagatik eta egoeragatik, ez nuen ikusten nire burua horretan. Horrek ez du esan nahi, produkzio batean solista aritzeko aukera izanez gero, ezetz esango nuenik, jakina!

- Damutzen zara profesiona izateko erabakia lehenago hartu ez izanaz?

Batzuetan bai, baina ezin naiz kexatu: nire lana gustukoa dut, ondo nago, pozik, eta gainera, gero eta sarriago ematen didate abesteko aukera.

- Bakarka edo taldean abestea nahiago duzu?

Ez dauka zerikusirik. Taldean oso lan polita egiten da, bakoitzak bere onena ematen du, harreman bereziak sortzen dira, aberasgarria da eta oso babestua sentitzen zara. Bakarrik abestean, aldiz, beste exigentzia maila, urduritasun eta ardu-

rak dituzu. Era berean, gogobetetasun handiagoa sortzen du. Ez dauka preziorik!

- Eta lana ez zaizunean ondo ateratzen?

Lehenbailehen ahazten ahalegintzen naiz. Hurrengo egunean, ordea, bueltak eman eta hobetzeko bideak bilatzen ditut.

- Kritikei kasu egiten diezu?

Neurri batean, denei gustatzea ezinezkoa delako. Niretzako kritikarik fidagarriena nire irakaslearena da, ez delako sekula konplimentuetan ibiltzen. Hala ere, kritikarik zorrotzena nik neuk egiten dut.

- Oraindik ere María Montesekin ikasten jarraitzen duzu?

Bai, urte asko daramatzagu elkarrekin. Ikusten dut berak emandako jarraibideak eraginkorrak direla eta hobetzen noala. Pozik nago.

- Zenbat denbora lapurtzen dizu kantuak?

“Abesteko, ahots berezia baino, belarri ona izatea da garrantzitsuagoa”






ZERMIK
SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-entresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

www.zermik.com

Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12

Asko, asko, asko. Gustura egiten dut, baina egia da denbora eskaini behar zaiola. Kanpoan dagoenak ez daki zenbat lan dagoen kontzertu edo opera baten atzean.

- Eta kanpoan nor egoten da? Zein adineko jendea izaten duzu parez pare?

Oso jende nagusia. Haiek ez daudenean ez dakit nor etorriko den gu ikustera. Askotan pentsatzen dut: gai izango gara Euskalduna Jaurgia betetzeko? Ez bazaude mundu honetan sartuta, oso zaila da erakartzea, ez daukalako zabalkunde handirik eta opera ikustea oso garestia delako (50 eurotik oilategian, 200 eurora bitartean...). Baina merezi du.

- Merkatzean dago koska?

Ez dakit zer esan. Ikustera

zoazen lehen lana ondo aukeratzea ere oso garrantzitsua da. Lan arina izan behar du: zarzuela bat (gaztelaniaz delako), opera bufoa... Oso sakona den zer-bait aukeratuz gero, akabo!

- Baduzu burutik kendu ezin duzun saioaren bat?

Agian bakarlari bezala eman nuen lehen kontzertua. Denboratxoa neraman abesten, baina ofizialki, lehen emanaldia, Zinema zaharrean eman nuen. Hunkitu egin ninduen lagunak, familia eta lankideak bertan ikusteak. Argi dago ez zela nire kontzerturik onena izan, baina oso berezia izan zen.

- Zure familiaren babesa duzu?

Bai, nire senarrak laguntza handia ematen dit, pertsona

“Kalitatea eskaini nahi dut esparru guztietan: bai abesten, bai nire itxurarekin ere”

oso ona delako. Ni abesten edo entseatzen nagoen bitartean, bakarrik egon behar du edo beste zeregin batzuk bilatu, baina hala ere, aurrera jarraitzeko animatzen nau beti. Gainera, berak ere koruan abesten du.

- Antzezlekuan, zer nolako garrantzia ematen diozu janzkera eta orrazkerari?

Garrantzi handia du. Protagonista ahotsa da, baina jantzia pisuzko osagarria da. Nik kalitatea eskaini nahi dut esparru guztietan: bai abesten, bai nire itxurarekin ere. Bakarlari gisa kantatzen dudanean, nik aukeratzen ditut nire soinekoak, eta kolorezalea naiz.

- Beste hizkuntza batzuetan abesteko, hizkuntza horiek menperatzea derrigorrezkoa da?

Derrigorrezkoa ez, baina egia da gauzak errazten dituela: letra ikasteko eta interpretatzeko ere. Gaztelaniaz, euskaraz, alemanez, italieraz, frantsesez, ingelesez... Hainbat hizkuntzatan kantatzen dugu eta gutxie-

neko bat jakitea lagungarria da. Lagunen ekarpenak ere eskertzekoak dira!

- Buruz ikasteko orduan, badaude kanta errazagoak eta zailagoak?

Bai. Barrokoa oso erraz ikasten da, abestea oso zaila den arren; musika garaikidea, berriz, nahiko zaila da, melodia eta armonia ezberdinak dituelako. Niri ez zait axola gehiago ikasi behar izatea, eta oraindik ez dut topatu gustatzen ez zaidan estilorik.

- Non eta zeinekin abestu nahiko zenuke?

Leku askotan, berdin dit, kantatzea gustatzen zaion edozeinekin.

- Nola zaintzen duzu ahotsa?

Gauza normalak egiten: haize-korronteetatik babestuz, aire girotuaz ihes eginenez, ez oihukatuz...

- Zein da zure helmuga?

Ikasten jarraitu, kontzertu berriak prestatu, nire programa zabaldu... gauza pilo bat abestu nahi ditut oraindik!

Dorleta Vidal



AMAIA HARATEGIA



Bertoko Okelak

Probaleku 5
Tfnoa. 943 17 05 84

Ermua

es
egolek
electrizitatea
iluminazioa

M. de Valdespina 14 · ERMUA
943 17 00 61 · egolek@hotmail.com

Komunitateak

San Pelayo

Aholkularitza
juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

arral97.com
arral

Telf.: 943 17 60 75

banatzaile ofiziala

| | | |
|----------------------|----------------------|--------------------|
| - Luis Cañas familia | - Pazo Señorans | - Txakoli Akarregi |
| - Añada Real | - Vicente Gandía | - Milana |
| - Vllera taldea | - Oriol Rossell | - La Loca Juana |
| - Gomez Cruzado | - Astobiza txakolina | - Nitida |

arral@arral97.com - Pol. Ind. Goitondo Galkoa Parcela Pab. 1 - Mallabia

OUTUMURO

Kafetegia

Kafe eta tarta bereziak
Aukera handia **TE** eta **INFUSIOETAN**

Astelehenetik ostiralera 9etan zabaltzen dugu

Gotzainaren bisita

Calahorrako gotzainak 1793an Mallabira egindako bisitaren berri jasotzen da Derion, Bizkaiko Elizbarrutiko Historia Artxibategian gordetzen diren eliz liburuetan.

221 urte pasatu dira haren etorreratik eta bistakoa da ordutik hona nahikoa euri jausi dela, ur-isuriak eta itoginak direla-eta elizako dorrea berriz dihardutelako konpontzen eta itxuratzen. Transkribatuta ba haren eskuizkribua hitzez hitz eta idatzi orijinalak dituen hitz berberekin, tilde falta eta guk orain kontsideratzen ditugun ortografia akatsak barne:

“Hallo la iglesia con aseo, y limpieza, pero con necesidad de una Capa de color verde (...), la Pila-Bautismal con falta de componerse, pues se pasa el agua por una juntura del Pie de ella; por la Bobeda del Coro, y por la parte que se sube a la torre se vio una gotera, que causa notable daño; en el Nicho o Alacena donde se

custodian los Cálices y Bolsas de Corporales se notó vastante humedad, à causa de faltarle el encajonado de tabla... además de observar los Capítulos siguientes:

1. *Inventario de diez en diez años.*

2. *Que se explique la Doctrina Christiana como obligación propia de los Curas y necesaria a los fieles, todos los días de fiesta y con más frecuencia en los Adbientos y Quaresmas.*

3. *Que se instrua a los niños en los rudimentos de una Santa fe Catolica en la obediencia para con Dios y sus Padres, y en todo lo que conduce para la salvación eterna.*

1930eko argazki honen itxura bera izango zuen 1793an Mallabiko Jasokunde Parrokiak.



4. *Que se cante la Salve con devoción y solemnidad.*

5. *Que al tiempo de la Comunión anual sean examinados todos los fieles en la Doctrina Christiana, negando la absolución a los que no se sugetaren a ello o no supieren lo necesario.*

6. *Que se frecuente la devoción del Rosario a Maria Santísima.*

7. *Que se guarden las fiestas de precepto, ya que los días festivos dedicados a Dios no se puede trabajar y si se quebranta tan saludable precepto se deja de santificar la fiesta y de asistir a la Parroquia a las funciones que se celebran en ella y a la explicación del Evangelio. Considerando lo mucho que se desagrada al Señor de que no se santifiquen los días*

dedicados especialmte. para su culto, mandaba, y mandó, que ninguna persona se emplee los días festivos en labores del Campo, ni otras obras serviles. Que en las Ferrerías no se travage después de dadas las doce de la noche de las vísperas de fiesta, hasta que pase le media noche del día festivos... Multando a los contraventores en la Cantidad que le pareciere conveniente, valiéndose para su exacción de la Justicia secular.

8. *Que las Cofradías no tengan comidas ni refrescos con pretexto alguno, pena de quatro Ducados que se exigirán al Mayordomo”.*

Francisco Matteo Aguidiano, obispo de Calahorra y Señor de la villa de Arnedillo.

Estibalitz González



Ferretería / Burdindegia

- * Burdindegia
- * Tresneria
- * Sarrailagintza
- * Giltzak / Aginte automatikoak
- * Ontziteria / Kopak / Mahai-tresnak
- * Opari artikulak

ANBOTO

Zubiaurre 25, Ermua ☎ 943 17 69 76 @ fer_anboto@hotmail.com
www.ferreteriaanboto.es

OSASUNA • ESTETIKA EDERTASUNA

Marfil

Ile-apaindegi bat baino gehiago!!

Egokitutako burua garbitzeko konketa

943 17 28 09 • Goienkale 12

ARRIETA CORDEVI

Etxetresna elektrikoak, telebistak, musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

URRIKO JAIK

URRIAK 24, BARIKUE

- 16:30 Umientzako TAILERRAK eskolan.
- Ondoren BURUHANDIEKIN udaletxeraino jaitsiera.
- 18:00 TXUPINAZUE eta ENKARTELADIE.
- 19:00 Elizpeko pilota txapelketian finala.
- 20:00 OILASKO PINTXUEK plazan.
- Ondoren BERTSO POTEUE: Fredi Paia eta Beñat Ugartetxea.
- 22:00 EH-ko II. DNI jaurtiketa txapelketa nagusixe plazan.
- 24:30 KARAOKIE Herriko tabernan.

URRIAK 25, ZAPATUE

- 10:30 FUTBITO TXIKI eskolan: Mallabia-Zaldibar.
- 11:30 OLINPIADAK umientzat eskolan.
- 19:00 HERRI ERRONKA (Alex Txikon eta bere taldie vs Bihurri eta bere taldie) herriko frontoien.
- 22:00 ROCK KONTZERTUE parkien Stai Zitto, Su Ta Gar, Vendetta eta Trikižio.

URRIAK 26, DOMEKIE

- 12:00 Gaztetxoen arteko PILOTA eta PALA partiduek herriko frontoien.
- 17:00 ANTZERKIXE ludotekan: Zer ete darabil Tomasak!!
- 18:30 TXOKOLATADA plazan eta bertatik BURUHANDIXEK urtengo die.



AUTOBUS ZERBITZU BEREZIXEK URRIKO JAIKETARAKO

| 2014ko Urriaren 25a - ZERBITZU BEREZIAK | | | | | | | | | |
|---|-------|-------|----------|---------|---------|------|---------|----------|--|
| MALLABIA | ERMUA | EIBAR | ELGOIBAR | ALTZOLA | MENDARO | DEBA | MUTRIKU | ONDARROA | |
| 0:25 | 0:30 | 0:35 | 0:40 | 0:45 | 0:50 | 0:55 | 1:05 | 1:15 | |
| 2:25 | 2:30 | 2:35 | 2:40 | 2:45 | 2:50 | 2:55 | 3:05 | 3:15 | |
| 4:25 | 4:30 | 4:35 | 4:40 | 4:45 | 4:50 | 4:55 | 5:05 | 5:15 | |
| 5:55 | 6:00 | 6:05 | 6:10 | 6:15 | 6:20 | 6:25 | 6:35 | 6:45 | |
| 6:30 | 6:35 | 6:40 | 6:45 | | | | | | |

| ONDARROA | MUTRIKU | DEBA | MENDARO | ALTZOLA | ELGOIBAR | EIBAR | ERMUA | MALLABIA | |
|----------|---------|-------|---------|---------|----------|-------|-------|----------|--|
| 20:10 | 20:15 | 20:30 | 20:45 | 20:48 | AP-8 | 21:10 | 21:20 | 21:30 | |
| 21:20 | 21:25 | 21:40 | 22:05 | 22:08 | AP-8 | 22:25 | 22:35 | 23:20 | |
| 22:10 | 22:15 | 22:30 | 22:45 | 22:48 | AP-8 | 23:10 | 23:20 | 23:30 | |
| 23:45 | 23:55 | 0:00 | 0:05 | 0:10 | 0:15 | 0:20 | 0:25 | 0:30 | |
| 1:45 | 1:55 | 2:00 | 2:05 | 2:10 | 2:15 | 2:20 | 2:25 | 2:30 | |
| 3:45 | 3:55 | 4:00 | 4:05 | 4:10 | 4:15 | 4:20 | 4:25 | 4:30 | |
| 5:45 | 5:55 | 6:00 | 6:05 | 6:10 | 6:15 | 6:20 | 6:25 | 6:30 | |

UDALAK, ULGAREN BITARTEZ, URALITA BATZECO KANPAINIE JARRIKO DAU MARTXAN

Urkiola Durangaldeko Landa Garapenerako Alkartea, Mallabiko Udalaren laguntzakin, zuntz-zementue (uralita) daukien elementuek modu egokixen erretiratzeko zerbitzu pilotue eskaintzen hasiko da Mallabixen. Zuntz-zementue edo uralita material guztiz kutsakorra da; amiantoz osatzen denez, baimendutako enpresa batek erretiratu behar dau. Zerbitzu hau jasotzeko edo informazio gehixaren interesa daukien herritarrek Urkiola Landa Garapenerako Alkartearekin jarri beharko dabe kontaktuen azaroaren 10a baino lehen 94 620 36 11 telefonuen (8:00etatik 15:00etara); edota urkiola@urkiola.org helbide elektronikuen. Desmontaketaren kostua interesa daukienez ordaindu beharko dabe, beti be, aurrekontuetan dauen diru partida ez bada nahikue, eskakizun guztixek aztertu ondoren.

UDALAK LOKAL BI ALOKATZEN DITU

Udalak osasun-zentru kokatute dauen eraikiñeko lokal bi, hiru urtez alokatzeko adjudikasiño prozesue hasiko dau. Honen helburue izengo da, gaur egun herrixen ez daukeguzen zerbitzuek herritarrei eskeintzie. Proiektue aurkezteko epie Bizkaiko Aldizkari Ofizialien argitaratu ondorengo egunetik hogeita hamar egunera izengo da. Informaziño gehixareko udal buleguetara edo web gunera jo.

Igone Amesti eta Ibaia Azagirre

hamburgueseria
TITANIC

Pintxo dastaketa poteoan

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

DANAONA
IZOZTUAK ETA AURREKOZINATUAK

GOIENKALE Z/G
ERMUA
Tel. 943 030 112

MERKATU PLAZA 7
ARRASATE
Tel. 943 770 598

san pelayo
clínica dental hortz klinika

San Pelayo 5, 1º
Ermua (Bizkaia)

Olatz Garcia Arregui

943 17 04 04

SEHIGA

PROTECCÓN LABORAL
PLAN BABESERAKO
ORNIDURA

Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

MALLABIKO Herriko taberna

Eguneko plattera (3€) menua bokatak, plater kombinatuak, pintxoak, kazolak, arraina eta txuleta parrillan (enkarguz)...

943 174 952
(asteartetan itxita)

10.000 SINADURA BAINO GEHIAGO JASO DIRA BIDEGORRIA ERAIKITZEAREN ALDE

Debabarreneko Esperientzia Eskolako kideek sinadura bilketa egin dute Ermua, Eibar eta Elgoibar lotuko lukeen bidegorria eskatzeko. Guztira 10.129 sinadura jaso dituzte eta urrian (zehaztu gabeko egunean) aurkeztu behar zituzten Eibarko Udalean. Bidegorri hori bizikletek zein oinezkoek erabili ahal izango lukete, baina oraindik aurreproiektua baino ez dago eginda. Proiektua aurrera eramateko instituzio ezberdinen elkarlana da beharrezkoa: Eibarko, Ermuko, Elgoibarko eta Zaldibarko Udalak, Gipuzkoako eta Bizkaiko Aldundiak eta Eusko Jaurilaritza.

BERBALAGUN EGITASMOAK XIII EDIZIOARI EKIN DIO

Ermuko Berbalagun praktika egitasmoak bere webgunean jakinarazi duenez, martxan dira ikasturte honetako berba taldeak. Izan ere, aurreko talde eta ordutegi berdinak mantenduko dituzte. Berbalagun berriek, mezua bidali beharko dute gus-tuko ordutegiarekin eta berehala jasoko dute erantzuna (ermua_berba@aek.org).

“Bizilagunak” programan izena eman daiteke jada

Gipuzkoako SOS Arrazakeria GKEak antolatzen du “Bizilagunak. Aldameneko Familia” programa eta horren xedea da bertako familiak eta atzerritik etorritakoak elkartu eta elkarrekin bazkaltzea. Ermuan, Udaleko Immigrazio Zerbitzua arduratzen da ekimena kudeatzeko, eta iaz 50 ermuar inguruk parte hartu zuen (guztira 1.000 lagunetik gora bildu ziren). Bazkariak azaroaren 23an burutuko dira, 14:00etan, eta bazkari bakoitzean egongo dira: bertako familia bat, familia etorkin bat eta dinamizatzaile bat, bazkaria antolatzeko lanetan lagunduko duena. Gainera, azaroaren 29an, 17:00etan, jaialdi erraldoia egingo da Victoria Eugenia antzokian. Parte hartu nahi duten bertako eta atzerritik etorritako familiek zein norbanakoek Udaleko Immigrazio Zerbitzuekin jarri beharko dute harremanetan (943179161).



VI. Artarrai Lau Haizetara lehiaketa ebatzi da

Urtero bezala, udako argazki lehiaketa antolatu du Artarrai Mendi Taldeak eta dagoeneko irabazleen izenak ezagutzera eman ditu. Lehen saria Iosu Ayalak irabazi du, Aspeko Arista de Murciélagosetik (Pirinioak) bidalitako argazkiagatik. Bigarren saria, berriz, Ramón Piñeirok eskuratu du, Peruko Cordillera Blancatik ekarritako irudiagatik. 70 eta 50 euro jasoko dituzte hurrenez hurren, mendirako materialean. Guztira 83 parte hartzaile izan ditu lehiaketak, eta haien artean hirugarren saria zozketatu da (35 euro mendirako materialean). Irabazlea Javi Alonso izan da. (Argazkia: Iosu Ayala).



1.335 pertsonen izena eman dute UKEko ikastaroetan

Ermuko kiroldegia antolatzen dituen 125 kirol ikastaroetan, 1.335 pertsonen izena eman dute jada, joan den urtean baino % 18 gehiago. Azken urteetako joerari eutsita, Gimnasia Abdominal Hipopresiboa, Body Power eta Barne Zikloa dira erabiltzaile helduen artean hazkunde handiena izan dituzten jarduerak. “Gimnasia Abdominal Hipopresiboaren kasuan azpimarratu behar da azken urtean izandako gorakada. Joan den urteko urrian ikastaro bakarra eskaintzen zen, egun 9 ikastaro daude martxan”, diote arduradunek.



ZUZENBIDE KONTUAK

Lege eta kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina

Tel: 846080080

Mugikorra: 688885435

zuzenbidekontuak@gmail.com

J. LUCAS

PINTURA EN GENERAL



630 22 51 36

Iberikoetan
espezialistak

Mayte

Denda
berria

VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412

Zure
publizitatea:

DROGETEN
DROGE I EN
DROGE I EN

aldizkarian

943 179350

688 632876

drogeten@gmail.com

Ermuan, Euskal Birusa Elkarteak antolatua,

25. SAN MARTIN AZOKA



AZAROAREN 8 AN
LARUNBATA



11:00

- Azoka jendearentzat zabalduko da.
- Kalejira Musika Eskolako trikitilari eta txistulari gazteekin.
- Kalejira Arrasateko gaiteroekin.
- 'KULKI' rekin umeentzako jolasak eta ikastetxeetako postuak San Martin plazan.
- Ehun buruko artaldearen jaitsiera Errekaldetik Baldespina.
- Abere erakusketa Baldespina parkean.
- Idi pareta eta gurdia herriko kaleetan barrena.
- Artisauen postuak Santiago plazan.
- 'Astobusa' Zubiaurren.

10:00-12:30

- Euskal jantzien erakusketa Lobianon. Eskolabarrik antolatua.

11:00-14:00

- Zenbat pisatzen du aurtengo txerriak? Apustua euro 1. Saria: jasotakoaren % 70a. Pisuak 14:00etan jakinaraziko da.

12:00

- Baserritar jantzi lehiaketa plazan. 12:00ak eta 12:30ak bitartean aurkeztu. Saria: bi lagunentzako afari bana.

12:30

- Euskal dantzak plazan: Txindurri txistu eta dantza taldea.
- Joaldunen kalejira.

13:00

- Herri kirolak Komentukuan: Jose Martin Bustinza, Euskal Herriko txapelduna, lastoa altxatzen; Irati Astondoa trontzan, lokotx-bilketan eta txingetan; eta Fausto Mugerza, 5 metroko altueran, 2 korte eta 2 metroko enborra mozten.

18:00

- Erromeria 'LUHARTZ' taldearekin Orbe plazan.
- Pilota partida Aritzemendi frontoian.

19:00

- Kalejira Arrasateko gaiteroekin.

19.30

- Errifa zozketa Orbe plazan.
- Larraindantza Orbe plazan.

ANTOLATZAILEAK:



LAGUNTAILEAK:

Azaroaren 8an, larunbata:**Etorri 25. San Martin Azokara!!**

Aurtengoa 25. San Martin Azoka izango da, eta Euskal Birusa Elkarteak prest dago hainbat berritasuni tartea egiteko: idi pareak gurdiarekin herriko kaleetan barrena, hegaztien erakusketa, joaldunen kalejira eta herri kirolen saioa, besteak beste. Hainbat lan dago egiteko eta gurekin bat egin nahi baduzu, deitu 943 179350 telefonora edo idatzi mezua euskalbirusa@gmail.com helbidera.

Egin beharrekoak:

- 6.00etan azokaren muntaia.
- 9.00etan plazako txosnaren muntaia.
- 15.00etatik aurrera: dena jaso.

Egunean zehar:

- Errifak saldu.
- Taloen eta tiket postuetan eta txosnan txandak egin.
- Saiheskia erre...

...animatuko zara?**Azaroaren
8an,
larunbata****25.
SAN MARTIN
AZOKA**

taloak, txerria
nekazaritza,
abereak, euskara,
idi-parea, errifak,
saiheskia, umeentzako
ikuskizunak, artisauak...




CITROËN
AUTOS AMEDI
Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.
Telefonoa 943 17 04 14



DESCUBRE-TÉ
Teak, kafeak, txokolateak,
eztia... eta baxera bereziak!!
Probaleku 4 Bis · Ermua, Bizkaia
943 03 15 81 · descubretenew@hotmail.com
www.teteriadescubre-te.com



**Montis DQ
Mouth**



BERRITZE LANAK
ZURE ERAIKINEAN
Ez dakizu nondik hasi?
GURE LANTALDE TEKNIKOAK
LAGUNDUKO DIZU
ZUK ERABAKI
www.spara.es
info@spara.es
943 17 70 57
IZARRA CENTRE Eraikina Zeharkalea, 36, 3º 48260 Ermua -Bizkaia-



Sagarra
Gastro-Pub
Probaleku 4 · Ermua · 943 946 810

Hainbat ekitaldi San Martin Kulturalean

San Martin Azokarekin batera hainbat jarduera antolatu ditu Euskal Birusak aurten ere, San Martin Kulturalean egitarau barruan. Urriaren 28an burutuko da lehena, Ane Albisuren eskutik. Ikerlari eta diseinatzaile honek baserritar jantzien inguruko hitzaldia eskainiko du (Lobianon, 18:30ean). Saioak bi ordu iraungo ditu, gutxi go-



rabehera, eta nork bere jantziak eraman ahal izango ditu, nahi beste galdera egiteko.

Bestalde, bertso jaialdia egingo da urriaren 31n (Ermua Antzokian, 22:15ean), eta Maialen Lujanbio, Alaia Martin, Onintza Enbeita, Andoni Egaña, Uxue Alberdi eta Iratxe Ibarra arituko dira bertsoan. Gai jartzailea, berriz, Ainhoa Aranburu izango da.

Azkenik, azaroaren 5ean talo ikastaroa eskainiko dute Euskal Birusa Elkarteko talogileek (Leku Eder elkartearen ordua zehazteke dago). Nahi duen orok parte hartu ahal izango du.

San Martin Kulturalea

Bertso jaialdia

Ermua Antzokian, urriaren 31n, 22.15ean



Ugaro

aholkulariak

Zubiaurre 27

943 17 43 44

Noelia Dosantos, makilatzaile profesionala eta gozogle afizionatua:

“Makilatzea oso gustuko dut, baina gozo-denda zabaltzea da nire ametsa”

Makilatzaile ikasketak ditu Noeliak eta azken sei urteak Bilboko EITBko egoitzan eman ditu lanean. Horrez gain, duela urte eta erdi tarta dekoratuak egiten eta saltzen hasi zen. Makillajea eta gozogintza: bi zeregin horien artean benetako zalantzak ditu.

- *Txikitako ametsa da makillatzailea izatea?*

Ez, berandu samar erabaki nuen. Ingalaterran eta Finlandian egon nintzen lanean, eta handik bueltan murgildu nintzen estetikan. Asko gustatu zitzaidan, eta makillaje ikasketak ere egin nituen jarraian.

- *Zure lehen lana gogoan duzu?*

Bai, Espainiako Txirrindularitza Itzulian parte hartu nuen. Umeentzako ekintzak antolatzen dituzte, eta ni kontratatu ninduten umei zauriak margotzeko. Oso gauza bitxia izan zen, polita.

- *Esparru berezian aritzea aukera izan zenuen...*

Bai, beno aurretik ere praktikak egin nituen zenbait antzerki eta argazki saiotarako: kaleko makillajea, ezkontzetarako, fantasiazkoa, body-painting-a... Orain, ETBn, gauza sinpleak egiten ditut.

- *Zein programatako aurkezle edo partaideak makillatzen dituzu?*

Bilbon albistegiak, elkarriketa eta kultur programak egiten dira batez ere. Bertan agertzen diren guztiak makillatzen ditugu.

- *Beraz, egunero aurpegi berdinak?*

Bai, eta batzuetan asperga-

ria suerta daiteke. Arropa mota edo kolorearen arabera, zerbait aldatu daiteke, baina orokorrean, pertsona bakoitzarekin jarraibide batzuk errespetatu behar ditugu.

- *Zenbat denbora ematen duzu bakoitzarekin?*

Gutxienez, ordu erdi eta asko jota, berrogei minutu. Aurpegi batzuk errazagoak dira: begiaren forma zuzendu behar ez delako; azal gazteek, orokorrean, lan gutxiago eskatzen dutelako...

- *Zer da errazagoa, gizonak ala emakumeak makillatzea?*

Gizonak: basea eta makillaje-hautsa eraman ohi dute bakarrik.

- *Zure lana gustuko duzu?*

Bai, asko. Zortea dut!

- *Nor makillatuko zenuke?*

Jende asko. Esaterako, Monica Bellucci, ikaragarri ondo dagoelako bere adinean; eta Alaska, zeharo aldatzen delako makillatuta eta makillatu barik.

- *Jendeak, orokorrean, bere burua makillatzen daki?*

Ez dakit zer esan. Batzuk, enel, ez dakit daramatena benetan gustukoa duten edo aholku okerrak ematen dizkieten: gehiegizko makillajea, kolore arraroak edo oso



ilunak begietan, masailezurretan bukatzen diren base laranja... Zergatik?

- *Jende guztia makillatu beharko litzatekeela uste duzu?*

Batzuk ez dira makillatzen, eta errespetatzen dut, baina uste dut laguntza bat dela. Natural joateko nahikoa da rimel apur bat (begirada zabaltzeko), koloretea eta brillo apur bat.

- *Beste esparru batzuetan ere trebea zara, gozogintzan, esaterako. Zer dela eta hasi zinen horretan?*

Gustukoa dut gozogintza, eta cupcake-ak modan ipini zirenean probatzea pentsatu nuen. Nire alabari egin nion lehen pastela eta hortik aurrera... asko egin ditut. www.facebook.com/noeliasweetdivine helbidean ikusi eta eskatu daitezke.

- *Nortzuk dira zure bezeroak?*

Gehienak, umeak. Gero pena ematen die tartak jatea, baina...

- *Zenbat denbora behar da horrelako tartak egiteko?*

Bi egun, gutxienez. Bizkotxo aurreko egunean egin behar da, eta hurrengoan lauzpabost ordu eman dekoratzen.

- *Makillajeak eta gozogintzak zerikusia dute?*

Bai, gauza artistikoak direlako, sormena lantzen delako, pazientzia eskatzen dutelako...

- *Eta bien artean aukeratu beharko bazenu?*

Ba... zaila da lana lagatzea, baina pastel-dendatxo zabaltzeko ametsa dut, eta ez dut baztertzen. Ermua oso leku txikia da horrelako negozio baterako, baina ikusiko dugu!

Dorleta Vidal



Drogeteniturrri, 227 zkia.



optika
itze

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7 Tfnoa. 943 17 46 51

MUGA



KIKLOAK

San Pelaio 4A behea
Telefonoa: 17 64 77
ERMUA

Andoni Esmeralda, txakur-hezitzailea:

“Txakur eta jabearen arteko komunikazio eza dute portaera arazo askok oinarrian”

Txakurren heziketari arreta berezia eskaintzeko asmoz, Andoni Esmeralda ermuarrak hainbat ikastaro egin zituen lurretako Zaunk enpresan. Ogibidez Gizarte Integratzailea den arren, txakurrei eta euren jabeen zuzendutako eskolak ere ematen ditu egun.

- Zer nolako formazioa jaso duzu txakur-hezitzaile moduan aritu ahal izateko?

Eusko Jaurlaritzak homologatutako ikastaro bat egin nuen eta horrez gain, gai berearekin lotutako masterra. Era berean gaiarekin zerikusia duten dokumental, liburu eta materialak ikuskatu ditut.

- Zer nolako gauzak ikasi dituzu bertan?

Batez ere txakurraren emozioak kudeatzen ikasi dugu. Hau da, txakurrek emozioak dituzte eta emozio horiek ezagutzea ezinbestekoa da txakurrekin komunikazio on bat izateko. Oso erraza da txakurrari erakustea eskua ematen, jartzen... baina hor ez dago benetako komunikaziorik eta hori lortzea oso zaila da emozioen kudeaketa behar bezala eza gutzen ez badugu.

- Nola baloratzen duzu, orokorrean, jabeek txakurrei emandako heziketa? Jabeak nahikoa arduratsuak direla esango zenuke?

Denetarik dagoela esango nuke. Pentsatu nahi dut txakurra duen oro saiutzen dela heziketa on bat ematen bere txakurrari, baina horretan faktore askok dute zerikusia: Esaterako, denbora eza animalia oinarritzko

beharrak asetzeko, behar horiek zeintzuk diren ez ezagutzea, gure bizitzaren erritmoa (nekea, estresa...), hirietako zarata etengabea... Horiek guztiak txakurraren portaeran eragin dezakete eta hortik arazoak etor daitezke. Gainera, gehienetan txakurra ateratzen da gaitzaile, bere urbanizazio prozesuan lanerako animalia izatetik maskota izatera pasa delako, eta prozesu horretan, animalia sena alde batera utzi behar izan delako gizakiaren bizimodura egokitzeak.

- Noiz komeni da txakur bat txakur-hezitzailearengana eramatea?

Normalean jendea txakur-hezitzaileengana portaera arazoak dituenean joaten da eta egokiena da arazoari aurre hartzea. Txakur eta jabearen arteko komunikazio eza dute portaera arazo askok oinarrian. Askotan nahi gabe eta konturatu gabe txakurraren jarrera txarrak indartzen ditugu. Nire aholkua da, txakurkumea edukiko duen edonor informada dila aurretik.

- Zer ikasiko dute txakurrek eta jabeek zure eskuletan?

Niri taldean aritzea gusta-



tzen zait eta taldeko saio horietan oinarritzko obediencia ikasten dugu: uhalari tira egin gabe ibiltzen, deiari jaramon egiten, jabe eta txakurraren arteko koordinazioa lantzen... Saio horien azken helburua da txakur orekatuak izatea, eta hori lortzeko ezinbestekoa da jabeek ezagutzea zeintzuk diren txakurraren berezko portaerak, nola ikasten duen txakurra eta animalia espeziearen berezko ezaugarriak zeintzuk diren.

- Azkenaldian polemika sortu da gure herrian: txakurrak, kakak eta lorategiak direla-eta. Zein da Udalaren jarrera?

Polemika sortu da lorategietan jarri dituzten seinaleak direla eta. Udalaren as-

moa arazoa konpontzea izan bada, uste dut arazoa areagotu eta polemika sortu duela neurri horrekin. Seinalea bestelakoa izan balitz (“mesedez, jaso txakurraren kaka”), seguru nago txakur zaleen jarrera ezberdina izango litzatekeela. Herrian guztiok elkarrekin bizi behar dugu eta horretarako debekua baino, heziketa da giltza. Hori bai, hiritar bakoitzak, txakurra izan edo ez, erantzukizunak ditu elkarbitzita horretan. Era berean, elkarbitzita errazteko beharrezkoa litzateke txakurrak solte ibiltzeko tokiak -ez kaka lekuak- prestatzea.

- Zurekin kontaktuan jaritzeko?

Mugikorrera deitu: 665714057.

ILEAPAINDEGIA
Izaskun
 Goienkale, 9 (Plaza San Martin)
 48260 Ermua Bizkaia
 Tel. 943.17 66 90
ILEAPAINDEGIA

T XALAPARTA
 ABERNA
 Eta asteburuetan
 pintxoak, afariak
 eta bokatak!
 Erdikokale 13
 (Ermua) **ENKARGYAK**
 943 030 299

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Enter
 INFORMÁTICA
 SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA
 VI Centenario 19, behea
 Tel. 943 17 90 37
 e-maila: enter-i@arrakis.es

NEREA EIZAGIRRE

-Txikitan ...

Telebistan medikua ikusi eta amari galdetzen nion: "Ama, horretarako ikasi bida? Bai. Ba orduan ez dut medikua izan nahi!". Paper aurrean jartzea ez zait sekula gustatu, baina egin behar...

- Nondik dator zuen enpresaren izena?

SMASH hitzak ingelesez, zerbait berritzailea nahi du esan. Slogana ordea euskaraz dugu: Aldaketarako prest?

- Nola hasi zinen honetan?

Unibertsitateen azoka batean ikusi nuen karrera. Kasting-ean izena eman, 5 € ordaindu eta ahalik eta diru gehien lortzea zen erronka. Azkenean, 70 € lortu genituen taldeko lauron artean. Kristalak garbitu behar izan genituen horretarako!

- Zer ematen dizu karrera honek?

Esperientzia. Lehenengo egunetik telefonoa hartu eta bezeroekin berbetan hasi ginen. Eginez ikasten dugu.

- Noiz egin zenuen lan aurrenekoz?

18 urterekin hemengo turroi enpresa batekin kontaktuan jarri, eta Finlandiako supermerkatu batean saltzen saiatu ginen. Ez zen ondo atera, ez zuten gure proiektua erosi, baina esperientziarekin geratzen gara gu!

- Zein toki bisitatu duzu?

Finlandian 2 hilabete egon ginen, San Frantziskon urtebete, Txinan bi hilabete, eta Indian beste bi.

- Ondo moldatuko zara hizkuntzekin, ezta?



Virginia eta Juanjoren alaba da Nerea Eizagirre. 21 urte bete berri ditu, eta Lidergo Ekintzaile Berrikuntza ikasten dabil Mondragon Unibertsitatean. Klaseko 12 lagunekin batera, SMASH aholkularitza du martxan. Hori da euren klaseko proiektua, eta behar bada euren etorkizuneko erronka.

Ingelesarekin bastante ondo, eta txinoarekin moldatzen naiz.

- Zein proiektutan zaude lanean?

Momentu honetan bi proiektutan nabil. Batetik, enpresen bizkortzailea sortu nahi dugu Ermuan. Eta bestetik, berrikuntzaren gaineko TEDX ekitaldia egingo dugu Bilbon.

- Izen handiko ekitaldiak dira horiek...

Bai, bi milioi harpidetu dituz munduan. Lan asko dago atzean, eta dena taldean egiten dugu.

- Zerk harritu zaitu gehien?

Indian, adibidez, emakume izateagatik kasu ez egiteak. Ikuskera hori aldatzen ari da baina!

- Zein merkatu da gomen-dagarria negoziotarako?

Txina edo Hego Amerika. Kontua da, txinatarrak oso mesfidatiak direla. Denari esaten diote baietz, baina gero ez dute ezer egiten!

- Etorkizunean non egingo zenuke lan?

Beti esan izan dut bizitza Ermuan amaitu nahi dudala, eta

hemen zerbait egin. Baina 21 urterekin bidaiatu nahi dut.

- Zer egiten duzu burua lasaitzeko?

Lagunekin egotea gustatzen zait, eurekin deskonektatu, barre egin...

- Biziorik bai?

Lana pixka bat bizio izan daiteke, egun guztia bainago telefonora kateatuta. Biltzarrerara jolastea ere asko gustatzen zait.

- Usain bat?

Indiako usaina, zikinkeri eta espezie usaina. Ez dut inoiz ahaztuko.

- Kolore bat?

Berdea, esperantza eta nire enpresaren kolorea.

- Bizitzako egunik zoriontsuena?

Indiara heldu nintzenean.

- Berriz jaioko bazina?

Gauzak beste era batera egingo nituzke, txarto egin ditudanak aldatu.

- Idolorik?

Nire aitona. Gura dudana arte, gustuko dudana egiten erakutsi dit berak.

- Zer miresten duzu pertsona batengan?

Gauzak egiteko gogoia edukitzea, eta zintzotasuna.

- Akatsik?

Askok. Filtrorik ez dudala esaten didate, ez bazait zerbait gustatzen esan egiten dudalako.

- Zer aldatuko zenuke Ermuan?

Jendearen mentalitatea. Askok eskatzen da, baina, jendeak ez du gauzetan partetik hartzen.

Leire Elustondo

Pub Dakota



Probaleku, z/g Ermua (Bizkaia)
dakotaermua@hotmail.com

KRABI

Ileapaindegia
Estetika



Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

Aitor González txirrindulariak Galiziako Itzulia irabazi du

Aitor González ermuarrak irabazi du XIII. Volta a Galicia, Aluminios Cortizo taldeko kide bezala lehiatu duen lasterketa bakarrean. Bere taldearekin (Lizarte nafarrarekin) arituko da aurten hirugarrenez, eta denboraldia bukatu baino lehen, talde profesional baten deia jasotzeko esperantza du.

Duela hilabete lehiatu zen Galiziako Itzulia —irailaren 19tik 21era—, baina garaipen garrantzitsua izan da Aitor González txirrindulariarentzat. Lizarte taldeak ez zuen Itzulian parte hartu behar eta Padroneko Aluminios Cortizorekin lehiatzeko baimena eman zioten ermuarrari.

Lehen egunean, goizean, erlojupeko igoera burutu zen Santiago de Compostela ondoko mendate batean, eta Aitorrek irabazi zuen. “Azken momentura arte ez nuen jakin irabazlea nintzen edo ez, baina etxekoei deitu nien denbora ona egin nuela jakin bezain laster. Peio Goikoe txea ermuarra ere bertan egon zen nirekin, eta urduri samar ipini ginen biok”. Arratsaldean, berriz, ohiko lasterketa egin zen Santiagotik gertu eta beste taldekide batek kendu zion lidergoa.


Hurrengo egunean, irailaren 20an, Coruñan lehiatu ziren, eta 15 txirrindulariz osatutako taldetxoa heldu zen helmugara lehenen, tartean Aitor. Liderra ez zenez taldetxo horretan heldu, Aitorrek hartu zuen berriz lidergoa. Eta azken egunean,

Sanxenxon, postuari eutsi eta garaipena lortu zuen.

Itzuli garrantzitsua da eta oso pozik dago Aitor lortutako emaitzarekin, baina aurretik ere hainbat lasterketa irabazitakoa da. “23 urtez azpiko kategorian Euskadiko txapelduna izan nintzen duela bi urte, eta lasterketa baina irabazi izan dut Murgian eta Antzuolan hurrenez hurren. Hala ere, hau izan da garaipen garrantzitsuena”, dio Aitorrek.

Talde bila

Otsailean hasiko den denboraldian ere Lizarte taldearekin arituko da, hirugarrenez, baina hurrengo urtera begira, talde profesional baten deia jaso nahiko luke. “Lizarte taldearekin ere horrela gertatu zen. Zuzendariak, Gorka Belokik, deitu zidan eurekin jarduteko, eta animatu nintzen. Debabarrena taldean nenbilen orduan, baina adinagatik kategoriaz aldatu behar nuen, eta egutegi hobea zuen taldea behar nuen. Orain ere, baten batek deitzea espero dut, profesionalentara pasatzea gustatuko bailitzaidake”. Zoritxarrez, badaki hori ez dagoela beste



esku, “oso denboraldi ona egin dezakezu, baina baten batek eskaini behar dizu kontratua”. Hori gertatu ezean, datorren urtea bukatutakoan txirrindularitza utziko luke, eta lanari edo ikasketei ekin. Ahal dela, kirolarekin zerikusia duen zerbaitetan.

Bizitza erdia darama bizikleta gainean —23 urte ditu eta 12rekin hasi zen—, eta aurten hainbat lekutan egon da, otsailetik irailera bitartean: Extremaduran, Andalu-

zian, Murtzian, Gipuzkoan, Valentzian... Itzuliei dagokienez, Toledon, Valentzian, Nafarroan, Frantzian, Leonen eta Zamoran: “la astebururo izan dugu lasterketa”. Lauan ibiltzea baino, mendateak nahiago ditu, batez ere igoetzea: “Bajatzeta askotan ez da erraza. Aurten hobeto ibili naiz maldan behera, baina Leonen jausi nintzen eta beldurra hartu diot. Konfiantza hartu beharko dut berriro”.

Dorleta Vidal



Pinxoak · Razioak · Kaxolak · Plater konbinatuak · Ogitartekoak
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 · 636 549 154

Egaña

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN
SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08

Sintoma: Aldaketarako abisua eta aukera jomuga

Urte gutxi batzuk dira osasunaren arloan lan-ean hasi nintzenetik. Sortzen zaizkigun mina, ezinegona, gatazka eta atsekabea desagerrarazten edo arintzen laguntzen diguten profesionalak asko dira egunerokoan. Normalean, sintomak bultzatzen gaitu eurengana. Abisua da, egunerokoan zerbait nahastu zaigun pertzepzioa eta sentsazioa. Aukera ere bada, desorekatu edo hautsi zaigun haria konpontzeko eta sendotzeko galdialdia.

Sintomak hizkuntza propioa du eta bere memoria. Zenbat eta arinen identifikatu, orduan eta lehenago hartuko ditugu onera egiteko neurriak. Medikuntza konturatzen hasia da aspalditik, sintomak beste garrantzia duela gertatzen zaigunaren jatorria ezagutzeak eta tratatzeak. Gure organismoa ongizaterako berez sortzeko kapaz ez den elementu biokimikoen falta hori nondik datorren, non eta noiz sortua den.

Memoria zelularrean gordetik dugun informazioan ere lan egiteak osatze prozesua azkartzen duela. Osasunaren berreskurapenean, adorea, zintzotasuna, konprentsioa, onarpena, konfiantza, hartu-eman bezalako potentzialak eta baloreak aktibatzea ere lehentasunezko egin-behar bihurtzen ari dela.

Gure txikien eta gazteen kasuan, esaterako, gero eta oihartzun handiagoa dute ikaste, egokitzapen eta portaera arazoek. Azal arazoak eta elikadura intolerantziak ere ugaritu dira horien artean. Sintomak agerikoak dira, izan fisikoak, animikoak, portae-razkoak. Arduratzen nau horien ugaritzeak eta naturalizazioak, orain urte batzuk normala ez zen horren onarpen immobilistak, biktimismoak edota kexa hutsaren erosotasunak. Susmoa dut oinarrian eusten gaituzten zimenduek behar beste sendotasunik ez dutela, eta denok horietan lan egitea ezinbesteko zeregina dugula. Konponbidea bada-



Ainara Riveras

go eta emaitza terapeutikoen eta klinikoen bide onean goazela erakusten dute.

Osasunean bezalaxe, arlo soziokulturalean, ekologian, hezkuntzan, ekonomian, politikan agertzen zaizkigun sintomak ere abisuak dira. Adi egon ezean, aurrez identifikatzen eta lantzen jakin ez dugun horren isla dira eta batzuetan eztanda behar izaten dugu konturatzeke, dagozkigun aldaketak egiteko. Sintomaren memoria eta jatorria arduraz arakatzeko askeago bihurtzen laguntzen gaitu kasu honetan ere. Niri gertatzen zaidanak eta nik neuk egiten dudanak inguruan eragiten duelako, gure txikien eredu garelako eta inguruan gertatzen denak ere niri eragiten didalako. Ia osasunean eta, oro har, prebentzio arduratsua, autentikoa eta konpartitua nahikoa zaigun gizaki eta gizarte bezala ikasten eta aurrera egiten jarraitzeko.

**Sintoma zenbat eta arinen
identifikatu, orduan eta
lehenago hartuko ditugu onera
egiteko neurriak**

solozabal
tabakoak

torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33



URRETA burdindenda

- * Etxea
- * Tresneria
- * Brikolajea
- * Enrailak
- * Giltzak
- * Sarrailagintza
- * Kit altzariak

Beharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

ESKAINITZA

Txakur hezitzailea eskaintzen da (oinarrizko obediencia, talde heziketa eta portaera arazoak).
© 665714057 (Andoni).

LAN BILA

Emakumea eskaintzen da pertsona nagusiak zaintzeko, orduka. Esperientzia daukat ostalaritzan, garbiketan, sukaldetan eta zerbitzari lanak egiten.
© 645 19 44 23

ETXEBIZITZA ERRENTAN

Pisua alokatzen da erdigunean. Hiru logela eta argitsuua. Berriztua eta igogailuarekin. © 665706235



Urriaren 1ean
Zorionak Udane!!!
Oso ondo pasatu eta muxu asko etxekoekin partez.



Urriaren 29an
Zorionak Mikeltxo,
muxu handi bat zure familiaren partez.



Urriaren 19an
Zorionak pitxintxu!
Zure aita eta amaxoren partez ondo pasatu zure 6. urtebetetzean.
Muxuak!



Azaroaren 10ean
Zorionak Aroa!
Neska handi! Ondo pasa zure 11. urtebetetzean eta musu handi bat etxeko guztion partez.



Mikel, azaroaren 12an
eta Olatz, azaroaren 25ean
Zorionak Mikel eta Olatz. Oso ondo pasa eta muxu handi bat zuen familiaren partez.



Urriaren 25ean
Zorionak Aritz:
Ondo pasa eguna zure 11. urtebetetzean, zure familiaren partez. Txapelduna zara!! Jarraitu horrela!!!

Hurrengo zenbakirako azken eguna:
AZAROAREN 12a



FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOA
INPRIMAKETAK KAMISETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89



LEIRE MAYORA
PODOLOGOIA

Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
© 943 17 47 44

Proba-Leku
Hezpaindegia - Estetika



Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42



PUB YOMY

Zubiaurre
kalearen
bihotzean



SAGARDUI
poltsak

Zubiaurre, 29 - Ermua · 943 170305

**MALLABIA
1962**

Mateo, Sabino eta Bixente Amesti Areitioko Barrenengoa baserriko semeak, Kamiñazpi deitzen zioten soloan, ermitaren ondoan. Sagastia zen orduan eta belarra moztu eta gurdira batzen zeundela, erretrata-tzera propio etorritako argazkilari bat gerturatu zitzairen, irudi polita osatzen zutela-eta. Idiak, noble eta mantsoak zirela dute akorduan eta bistakoa da benetan tenplau hartu zutela Bixente adar gainean paratu zitzaizenean ere!

**ERMUA
1934**

Etxean eta etxerako hazten zen txerriarekin urte guztirako okela, txorizo, odoloste eta abarrok estaltzen ziren sasoiaren gomuta legez, hauxe erretratu hau: Errotabarriko txerria erro-tako atarian, ondo patxadatsu paratuta erretraturako, atzeko izter eta soloak erakusten, bertako etxekoandrea zen Modesta Onandia, haren seme Doroteo Olañeta eta auzoko batzuen aurrean.

**NEREA IÑIGUEZ
HORTZ KLINIKA**

San Inazio 4 - Ermua
943 030 512 / niklinika@gmail.com

Drogeteniturrri, 227 zkia.

Pub SCORPIO

Zubiaurre, 21
ERMUA

Udal Euskaltegia
Teresa Murga Eraikina
Goienkale z/g 2. solairua
ERMUA · 943 170 925
ermukoudaleuskaltegia@gmail.com

Ermuko Udalak 300.000 euro gastatuko ditu bi padel pista egiteko. Aritzmendi pilotaleku ondoan eraikiko dira, egun bolatokia dagoen lekuan, eta 2015eko hasieran martxan egotea espero dute. Udaleko webgunean irakur daitekeenez, "UKeren kirol instalazioen erabiltzaileetatik %76,36 erabat ados dago Ermuan padel pistak eraikitze hartu den erabakiarekin".

Zure ustez, padel pistak beharrezkoak dira? Beste kirol azpiegiturretan inbertituko zenuke?



Diru hori beste gauza batzuetan inbertitu daiteke. Zentro zibiko batean, esaterako, non gazteak gizaki moduan garatu ahal izango ziren (heziketa ez formala egiten, baloreetan hezten...). Gainera, uste dut padela ez dela kirol ezaguna gure artean. Hobe litzateke estali gabeko igerilekua edo bidegorria egitea.

Luna Alba, 36 urte



Uste dut badaudela beste gauza batzuk, beste behar batzuk dirua inbertitzeko. Padelari buruz zerbait entzun dut, baina ez, ez zait ezaguna egiten. Estali gabeko igerilekua egitea ez litzateke batere gaizki egongo.

Ismael González, 76 urte




Kirola den guztia ona da, baina hala ere, herri honetan badaude gauza garrantzitsuagoak. Horrez gain, hemendik kanpo padela kirol ezaguna da (Galizian, esaterako), baina ez dakit hemen beharrezkoa den. Jende gazte zein nagusientzako errehabilitazio eta kirol zentroak egingo nituzke nik.

Cristina de Dios, 67 urte



Gure herrian behar asko daude, baina lehenengo eta behin begiratu beharko litzateke zenbat pertsonok erabiliko dituzten pista horiek. Horren inguruko ikerketa egin izana espero dut. Ez dut kirol hori larregi ezagutzen, entzun dudan arren, baina bidegorri bat egokiagoa iruditzen zait.

Jose Mari Lorenzo, 60 urte



Padel pista egitea kapritxoa dela? Baina... herriak, irudia zaindu behar du!



Tasio eta Sabino

ZINEA**1etik 3ra****8tik 10era****15etik 17ra****22tik 24ra****29tik 1era**

Ermua Antzokian.

Hainbat film eta ordutegi.

ZINE-KLUBA**Hilak 6****Hilak 13****Hilak 20****Hilak 27**

Ermua Antzokian.

Hainbat film. 20:30ean.

UMEENTZAKO ZINEA**Hilak 2****Hilak 9****Hilak 16****Hilak 23****Hilak 30**

Ermua Antzokian.

Hainbat film. 17:00etan.

MUSIKA**Hilak 1:**

Kontzertua: Rosa Sánchez kantautorea (Mexiko rebelde jardunaldiak).

19:00etan. Plazan.

Hilak 14:

Kontzertua: "Jainko txiki eta jostalari hura". Kirmen Uribe, Mikel Urdangarin, Rafa Rueda eta Bingen Mendizabal. 22:15ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 10€

Hilak 15:

World music kontzertua: Gabacho Maroconnection. 20:00etan. Lobiano Kultur Gunean. Sarrera. 8€

Hilak 20:

Zezilia Deunaren jaialdia. 18:00etatik aurrera.

Hilak 21:

Zezilia Deunaren jaialdia: Alboka Musika Eskolako ikasleak + Txindurri taldea. 22:15ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 3€

Hilak 22:

Zezilia deunaren diana: Irulitxa txaranga. 7:30ean.

ANTZERKIA**Hilak 7:**

"Cómico", Rafael Álvarez "El Brujo"ren eskutik. 22:15ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 12€

Hilak 22:

Haurrentzako antzerkia: "Amama Anaren bidaiak", La Papa Antzerkiaren eskutik. 17:00etan. Ermua Antzokian. Sarrera: 4€

ERAKUSKETAK**Hilaren 15era arte:** Eskulturak: Ángel Gil.**Hilaren 17tik 30era:** Argazkiak: "2014ko oporrak" lehiaketara aurkeztutako lanak.

18:00etatik

20:00etara.

Lobiano Kultur Gunean.

UMEENTZAKO EKITALDIK**Hilak 1:**

Haurrentzako ipuin-kontaketa: Saharako ipuinak, Dorleta Kortazaren eskutik. 17:30ean. Udal liburutegian.

Hilak 7:

Haurrentzako jolasak (Barixakuetan). 17:00etan. Orbe kardinalaren plazan.

BESTELAKOAK**Hilak 8:**

San Martin Azoka: hainbat ekitaldi. 11:00etatik aurrera. Orbe kardinalaren plazan eta inguruko esparruetan.

Hilak 10:

Gaztañerre: Gaztainen banaketa eta girotze-musika. 19:00etatik aurrera. Erreina txokoan.

Hilak 15:

Magostos: Gaztainen banaketa eta girotze-musika. 11:00etatik aurrera. Galiziako Zentruan.

Hilaren 17tik 23ra:

Andaluziako kultur astea: hainbat ekitaldi. San Pelaio plazan eta elkartearen egoitzan.

Patxi López



**TXINDURRI
TALDEA**
Tokian
tokiko

PRO



- ARRAINDEGIA
- ITSASKIAK
- ARRAIN FRESKOAK ETA
IZOZTUAK

**ESKAINZA BEREZIA
OSTRALERO**

Zubiaurre, 21 baxua
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)
" 17 24 33 (etxea)
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59
ERMUA

**Infreñu
Taberna**



Kardenal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com

ALBOKA




**MUSIKA
ESKOLA**

- Akordeoia
- Klarinetea
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardinoa
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

GREMIOEN

GIDA



DEKORAZIOA
OBREN KOORDINAZIOA * MARIAN CARRACEDO DEKORATZAILERA
dekorazio estudioa
trastévere
baruko dekorazioa
san pelaio, 26 ermua
tel/faxa. 943 17 90 89
trastevere@wanadoo.es

ITURGINTZA
ITURGINTZA, GAS ETA KALEFAKZIOA
LUIS VALLE
Bainugelen erakusketa
943 17 15 56
Tailerra
943 17 23 56
Goienkale z/g

PINTURAK
J.LUCAS
PINTURA EN GENERAL
630 22 51 36

ELEKTRIZITATEA
BETA
ARGIZTAPENA
ELEKTRIZITATEA
• Proiektuak • Kalefakzioa
• Instalazioak • Gaueko tarifa
• Erreformak • Erradiadore elektrikoak
Diputazio, 13 943 17 65 25
689 23 31 71

ERROTULAZIOA
ROTEK
rótulos
• Argi errotuloak • Irudi korporatiboa
• Autoendako errotuloak • Neoia
• Barne errotulazioa • Inpresio digitala formato handian
Goitondo behekoa industrialdea
C-1 partzela, 5 behea (Mallabia)
eta Faxa: 943 17 00 36 • rotelk@telefonica.net

ETXE-BIRGAITZEAK
BERRITZE LANAK
ZURE ERAKINEAN
Ez dakizu nondik hasi?
GURE LANTALDE TEONKOAK
LAGUNDUKO DIZU
ZUK ERABAKI
www.spara.es
Info@spara.es
943 17 70 57
IZARRA CENTRE Erakina Zeharkalea, 36, 3º 48200 Ermua-Bizkaia

PERTSIANAK
TOLDOS Y PERSIANAS ORBE
• MUNTAIA ETA KONPONKETA
• MOTORIZAZIOA
• PERTSIANA DEKORATIBOAK
• PERTSIANA BILGARRIAK
• SEGURTASUN PERTSIANAK.
TAILERRA:
Zearreko buelta 2
943 17 66 34
630 01 13 41
ERAKUSKETA: Karabixa, 1
Tel. 943 17 98 60

AROTEGIA
iraner
Puertas EDER Carpinteria
• Ateak, horma-armairuak, tarimak...
• Burdindegiko artikulua salgai
• Giltzen kopiak, ebanisteria
• Gremioen koordinazioa
Bizkaia etorbidea 10, behea Ermua. Tel. 943174925 · iranercb@gmail.com

Gremioen Gidan publizitatea jarri nahi baduzu...
943 17 93 50 / 688 63 28 76 / drogeten@gmail.com

JAR ZAITEZ MARTXAN

16 ETA 29 URTE ARTEKO
GAZTEENTZAKO PROGRAMA

ENPRESAK SORTZEA

- ➔ aholkularitza
- ➔ diru laguntzak

LAN GAITASUNEN ARLOKO
PRESTAKUNTZA - 44 ORDU

| Norentzat | Lekua | Datak | Orduetgia |
|--------------------------------------|------------|-------------------------------|-------------|
| 16 eta 29 urte arteko gazteentzat | AMOREBIETA | Urriaren 16tik 30era | 09:30-13:30 |
| | ERMUA | Urriaren 31tik azaroaren 14ra | 09:30-13:30 |
| | DURANGO | Abenduaren 1etik 16ra | 16:00-20:00 |

IZEN-EMATEA ETA INFORMAZIOA

Ametx Erakunde Autonomoa (Amorebieta-Etxano)

T. 946 300 650 / gazteria@ametx.net

Behargintza (Durangaldea)

T. 946 232 522 / behargintza.mdurango@bizkaia.org

Fundación Izarra Fundazioa (Ermua)

T. 943 177 159 / proyectos@fundacionizarra.eu



Bizkaiko Foru
Albarden
Diputazioa
Foro de Bizkaia



Durangoko Merinaldearen
Amankomunazgoa
Mancomunidad
de la Merindad de Durango